I. LOTEAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA: ERANTZUKIZUN ZIBILA / ONDARE-ERANTZUKIZUNA

KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen bidez, aseguru-etxeak bermatzen ditu aplikatu beharreko araudiaren arabera aseguratuari zuzenean, solidarioki edo subsidiarioki dagozkion erantzukizun zibil/ondare-erantzukizunetik eratorritako ondorio ekonomikoak, baldin eta erantzukizun horiek bere jarduera gauzatzean hirugarrenei eragindako gorputzeko, kalte material eta/edo ondoriozko kalteengatik sortzen badira, bai eta aurretiazko gorputzeko eta/edo kalte material baten ondorio ez diren hirugarrenen ondarean eragindako kalteengatik ere. Kontratu hau Erantzukizuneko Arrisku Guztien aseguru gisa sinatzen da; horrenbestez, poliza honetan berariaz baztertuta dauden erantzukizunak izan ezik, aseguratuak izan ditzakeen gainerako erantzukizun guztiak estalita geratzen dira, aurrerago ezarritako mugen barruan. Aseguru-etxeak bere gain hartzen du, poliza honen estalduraren barruan, eta aurrerago ezarritako salbuespen, muga, termino eta baldintzen arabera, aseguratuari kalte-ordaina ematea, erantzukizun horren ondorioz ordaindu behar dituen zenbateko guztiengatik:

a) Legeak ezarritako erantzukizuna, bai poliza ondorioak sortzen hasten den unean indarrean dagoen araudi juridikoaren arabera, bai polizaren indarraldian jartzen den araudiaren arabera.

b) Eskainitako zerbitzu publikoen ohiko edo ezohiko funtzionamendutik eratorritako erantzukizuna.

c) Aseguratuari bere administrazio-jarduera gauzatzean dagokion erantzukizuna, bai eta edozein titulu juridikoren bidez bere jabetzan dituen baliabide materialen eta ondarearen ustiapenetik, erabileratik eta aprobetxamendutik eratorritakoa ere.

d) Aseguratuari dagokion erantzukizun "in vigilando" betebeharraren ondorioz, bere esku dauden beste erakunde publiko batzuen ondasunei dagokienez.

ASEGURU-HARTZAILEA: Legazpiko Udala

ASEGURATUA: Kontratu honetan, honako hauek izango dira aseguratuak:

Legazpiko Udala, haren erakunde autonomoak, halakorik balego, eta mendeko erakundeak (Legazpiko Udalari lotutakoak, kontratua sinatzen den unean eratuta daudenak edo

kontratuaren indarraldian eratzen direnak, beti ere haien jarduera udalaren bereraren jardueraren ondorio bada), bai eta haren ordezkariak, izendapen askeko langileak, funtzionarioak, enplegatuak, mendeko langileak eta, oro har, beren eginkizunak betetzen ari diren bitartean udalaren zerbitzura dauden langile guztiak ere.

Aseguratu izaera izango dute, halaber, aipatutako erakundeetan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiek, haien lan- edo administrazio harremana edozein dela ere (jabetzan plaza duen funtzionarioa, bitartekoa, kontratatua edo antzeko egoeran daudenak) betiere erakunde horiek ordaintzen badiete. Era berean, praktikaldian eta/edo prestakuntzan dauden langileak ere aseguratutzat hartuko dira.

Halaber, aseguratu izaera izango dute Udalak antolatutako kultura- eta kirol-jardueren antolakuntza- batzordeetako kideek, jarduera horiek antolatu eta garatzeko egiten duten lanari dagokionez. Era berean, barne hartzen dira aseguratuak babestu, sustatu edo antolatutako kultura-, kirol-, aisialdi- edo laguntza-jardueretan parte hartzen, laguntzen edo jarduerak zuzentzen dituzten irakasleak, monitoreak, boluntarioak eta gainerako langileak.

- Aseguru-hartzailearen kontura beren jarduera profesionalak gauzatzen dituzten tituludun langileak, praktiketan eta/edo prestakuntzan dauden langileak, bai eta haien kontrol eta mendekotasunpean lan egiten duten pertsonak ere. Horien artean sartzen dira administrazioaren mendeko osasun-langileak, bai gizarte-laguntzako jardueran (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, drogazaletasuna duten pertsonak eta antzeko kolektiboak), bai aseguratutako administrazioaren enpresa-medikuntzako zerbitzuan (edo barneko mediku-zerbitzuan) dihardutenak.

- Aurreko aseguratuetako edozeinen oinordekoak eta senideak, aseguratu horien heriotza gertatuz gero haiei eskatu ahal izan dakizkiekeen erantzukizunei dagokienez.

HIRUGARRENAK: Kontratu honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira hirugarrentzat:

Aseguratuak, Aseguru-hartzailearen eta gainerako erakunde aseguratuen zerbitzuen erabiltzaile diren aldetik.

Aseguratuak, Enpresaburuaren erantzukizun zibilari edo lan-istripuen ondoriozko erantzukizunari dagokienez.

Aseguru-hartzailea eta Aseguratuak ez diren gainerako pertsona fisiko edo juridiko guztiak, aseguratuen eta haien mendeko langileen jardueren ondorioz.

EZBEHARRA

Aseguratuak legez erantzukizuna izan dezakeen kaltea eragin duen egitate oro, betiere aseguru-kontratu honen xede bada eta polizaren bermeak aktibatzen baditu, adostutako baldintza eta betekizunen arabera.

Jatorri edo kausa beretik eratorritako egitate edo inguruabarren segida ezbehar bakar eta berberatzat hartuko da, kaltetu eta aurkeztutako erreklamazio kopurua eta tartean dauden profesionalen kopurua edozein dela ere.

KALTEA:

Materiala: ondasun baten edo haren zati baten suntsipena, narriadura, kaltea edo desagerpena, bai eta animaliei eragindako lesio fisiko oro ere.

Gorputz-kaltea: pertsona fisikoei eragindako gorputzeko lesioa edo heriotza.

Ondoriozko kaltea: erreklamatzaileak jasandako galera ekonomikoa, polizak estalitako gorputzeko edo kalte material baten ondorio zuzena dena.

Ondoriozkoa ez den kaltea (ondare-kalte hutsak): erreklamatzaileak jasandako galera ekonomikoa, aurretiazko gorputzeko edo kalte material baten ondorioz ez dena.

DENBORA-EREMUA

Aseguru-polizaren estaldurak, adostutako baldintzetan, Aseguratuaren Erantzukizun Zibilera mugatzen dira. Erantzukizun hori aseguruaren indarraldian gertatutako kalteetatik eratorritakoa izango da, baldin eta kalte horien ondoriozko erreklamazioa Aseguratuari eta/edo Aseguratzaileari egiten bazaio, polizaren indarraldian edo poliza bertan behera utzi eta gehienez 24 hilabeteko epean, zuzeneko akzioa baliatuz.

EREMU GEOGRAFIKOA

Polizaren estaldurak Espainiako jurisdikzioaren aurrean aurkeztutako erreklamazioak soilik hartuko ditu barne, betiere egitateak Espainian gertatu badira eta Espainiako lurraldean indarrean dauden lege-xedapenen arabera ezarritako erantzukizunak edo bestelako betebeharrak badakartzate

ESTALITAKO ARRISKUAK

1.1 Erantzukizun zibila / ondare-erantzukizuna

Oro har, estalduraren barruan sartuko dira Legazpiko Udalaren eta gainerako aseguratuen berezko eta berariazko egintza guztiak. Bereziki, eta adibide gisa, baina inolaz ere zerrenda mugatzailea izan gabe, honako erantzukizun hauek bermatzen dira: aseguratuei zuzenean, mankomunatuta, solidarioki edo subsidiarioki egotz dakizkiekeen erantzukizunak, baldin eta hirugarrenek beren ondasun eta/edo eskubideetan jasandako gorputz-kalte, kalte material eta/edo ondoriozko nahiz ondoriozkoak ez diren kalteen ondorio badira, eta betiere kalte horiek zerbitzu publikoen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorio badira edo, oro har, aseguratutako erakundeetatik eta gainerako aseguratuengandik eratorritako egintzen ondorio badira. Erantzukizun horiek Legearen aginduz ezarritakoak izango dira, dela poliza indarrean jartzen den unean araudi juridikoa indarrean dagoen, dela polizaren indarraldian indarrean sartzen den, eta honako hauen ondorioz:

- Aseguratuari egotz dakizkiokeen gorputz-kalte, kalte material eta ondoriozko kalteengatiko erantzukizunak, agintariek eta langileek beren eginkizunak betetzean hirugarrenei eragindakoak, bai eta Aseguru-hartzailearen berezko jarduerak garatzean erantzun behar dien pertsonek eragindakoak ere.

- Aseguratuaren ondarearen barruan dauden edo edozein titulu juridikoren bidez haren jabetzan edo edukitzan dauden ondasun higigarri eta higiezinen (eta haien edukien) eta instalazioen titulartasuna, ustiapena eta erabilera.

- Aseguratuak alokairu-erregimenean edo beste edozein tituluren bidez okupatzen dituen ondasun higigarri eta higiezinen maizter gisa duen izaera, ondasun horien titularren aurrean.

- Aseguratuaren ardurapean dauden bide publikoen, auzo-bideen, plazen eta zubien jabetza eta mantentze-lanak, bai eta udalaren ardura den zuhaiztiak zaintze eta mantentzetik eratorritakoak ere.

- Aseguratuak bere jarduera garatzeko erabiltzen dituen instalazioen eta ondasun higigarri zein higiezinen kontserbazio- eta mantentze-egoera, ondasun horiek erabiltzeko titulua edozein dela ere.

- Lokalak ikuskatzeko jarduera.

- Aseguratuari dagokion "In vigilando" betebeharren ondoriozko erantzukizuna, haren esku dauden beste erakunde publiko batzuen ondasunei dagokienez.

- Hirugarren pertsonek dituzten ondasunen zaintza edo gordailutzaren ondoriozko erantzukizuna, bai eta aseguratutako erakundeen esparruen barruan erakunde horietako langileen jabetzako gauza eta ondasunetan eragindako kalte materialen ondoriozko erantzukizuna ere, ondasun horien lapurreta, galera edo galtzea barne, berariaz baztertutako ondasunak izan ezik; 50.000 euroko azpimuga ezbehar bakoitzeko eta 200.000 eurokoa aseguru-aldi bakoitzeko.

Ibilgailuen kasuan, berme hori aplikatuko da soilik ibilgailuak etengabeko zaintza duten aparkalekuetan badaude edo baimenik gabeko pertsonak bertara sartzea eta ibilgailuak erabiltzea eragozten duten babes-neurriak dituzten tokietan badaude. Ez dira estaliko ibilgailuen artean izandako talken ondorioz ibilgailuei eragindako kalteak. Aseguratzaileak dagokion kalte-ordaina ordainduko du, betiere kalte horiek estaltzen dituen beste aseguru bat ez badago, hala nola suteen, lapurreten, kalte propioen edo kaltea eragin duenaren erantzukizun zibilaren estaldura.

- Aseguratuaren ondasun edo zerbitzuetan jatorria duten sute, leherketa, ke, ur, gas, usain edo lurrunen ondorioz eratorritako erantzukizunak, baldin eta gertakari horiek ustekabekoak, bat-batekoak eta ezustekoak badira.

- Aseguratuak obra berrien sustatzaile edo eraikitzaile gisa, edo lehendik dauden eraikin edo instalazioak mantendu, konpondu, handitu edo eraberritzeko obren sustatzaile edo eraikitzaile gisa izan dezakeen erantzukizuna, betiere obren bolumena 1.000.000 eurotik gorakoa ez bada.

- Eraikinak eraisteko eta botatzeko lanen ondoriozko erantzukizuna, betiere lan horien aurrekontua 15.000 eurotik gorakoa ez bada. Hala ere, lanak aseguratutako erakundeetako kontratista-enpresa batek egiten dituenean, erakunde horiek enpresa horri eskatuko diote indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru-kontratu bat harpidetzeko, esleitutako obraren gauzatzeari dagozkion arriskuak eta jarduera estaliko dituena. Erantzukizun horrek beti kontratista-enpresaren polizaren gehiegizko estaldura gisa jardungo du.

- Aseguratutako eraikuntza-lanak gauzatzen diren bitartean, ustekabeko gertakari baten ondorioz aldameneko eraikin, egitura edo eraikuntza-obrei eragindako kalteetatik eratorritako erantzukizunak.

- Lurpeko instalazioei (kableak, kanalizazioa, ur-, gas- eta elektrizitate-hodiak eta antzekoak) nahiz aireko instalazioei (lur gainean edo altueran dauden kanalizazioak) eragindako kalteetatik eratorritako erantzukizunak. Ezbeharrik gertatuz gero, kalte-ordaina instalazio edo kanalizazio horiek konpontzeko kostuetara mugatuko da betiere.

- Elikagaien osasun-kontrolari, horien manipulazioari, salmentari eta banaketari dagokion betebeharraren ondoriozko erantzukizuna, bai eta aseguratutako erakundeen instalazioetan egoera txarrean dauden elikagai edo edariak zerbitzatzearen ondorioz pertsonei eragindako intoxikazio edo pozoitzeengatik sortutako erantzukizunak ere.

- Aseguratuaren Zaintza, Segurtasun eta Mugikortasun Zerbitzuaren jardueretarik eratorritako erantzukizunak, su-armen erabileraren ondoriozkoak barne, baita aseguratuaren mendeko segurtasun- eta zaintza-indarrek erabilitako errepresio-baliabideen ondoriozkoak ere.

- Ibilgailuak bide publikotik kentzeko agindutik eratorritako erantzukizunak (udal-garabiaren bidez ibilgailuak lotu, askatu eta arrastatzeko lanak), bai eta zaintza eta gordailurako aldi baterako erakunde aseguratuen esku dauden hirugarrenen ibilgailuei eragindako kalteen ondoriozkoak ere. Estalduratik kanpo geratzen dira garabiaren jarduketaren xede den ibilgailuari lotze- eta askatze-lanetan eragindako kalteak, bai eta hura arrastatzean sortutakoak ere, kaltea zirkulazio-egitate baten ondorio denean (ez da estaltzen zirkulazio-arriskua).

- Aseguratutako erakundeentzat edo haien kontura esleipendunek, emakidadunek, kontratistek edo azpikontratistek egindako lanen ondoriozko erantzukizun zibil subsidiarioa.

- Uraren, lurzoruaren eta airearen kutsaduratik eratorritako erantzukizunak, baldin eta kutsadura ustekabekoa, bat-batekoa eta aurreikusi gabekoa bada, garbiketa-gastuak barne. Kutsadura ustekabekotzat eta bat-batekotzat hartuko da, kutsaduraren agerpena kutsadura eragiten duen gertakariaren ondorengo 72 orduen barruan gertatzen denena. Estaldura honetarako 300.000 euroko kalte-ordainen muga ezbehar bakoitzeko eta 1.000.000 eurokoa aseguramendu-aldi bakoitzeko ezartzen da.

- Aseguratutako erakundeen mendeko langileek, funtzionarioak izan edo ez, zerbitzu-eginkizunak betetzeko eskura jarritako beren jabetzako edo alokatutako ibilgailu motordunen erabileraren ondoriozko erantzukizuna. Estaldura honek beste edozein aseguru baliodun eta kobragarriren gainetik jardungo du, aseguratuaren izenean kontratatuta egon ala ez, eta, gutxienez, Ibilgailu Motordunen Nahitaezko Aseguruak (INMA) estalitako bermeen gainetik, aseguru hori kontratatua egon ala ez. IMNA estalduratik kanpo geratzen da.

- Nahitaezko eta/edo borondatezko ibilgailu motordunen asegururik ez duten ibilgailuen, industria-makinariaren eta plataforma industrialen jabetzatik, erabileratik, mantentzetik eta ustiapenetik eratorritako erantzukizunak.

- Merkantzien eta, oro har, ondasunen garraioaren ondorioz eratorritako erantzukizuna, lurreko garraiobideetan eta karga- eta deskarga-lanetara soilik mugatuta, bai eta garraioen zehar ondasun horiek eragin ditzaketen kalteengatik ere, arriskutsutzat sailkatutakoak izan ezik.

- Era guztietako ekitaldi eta gizarte-, kirol-, kultura-, aisialdi,- arte- eta jai-jarduerak eta ospakizunak, erakusketak eta erakustaldiak antolatzea eta/edo horietan parte hartzetik eratorritako erantzukizunak; horien artean sartzen dira harmailak eraiki eta mantentzea, su artifizialak jaurtitzea, material piroteknikoa erabiltzea, ibilgailu motordunak dituzten edo ez dituzten kabalkadak eta antzeko jarduerak. Era berean, aseguratutako erakundeek babesle gisa parte hartzearen ondoriozko erantzukizun mankomunatu, solidario edo subsidiarioak ere estaliko dira. Su artifizialak jaurtitzen diren kasuetan, poliza honek su artifizialak jaurtitzeaz arduratzen den piroteknia-enpresak kontratatutako bermeen gainetik jardungo du.

- Ikuskizun publikoen eta aisialdi-jardueren ondoriozko erantzukizuna, ikuskizun publikora edo aisialdi-jarduerara bertaratutako pertsonei eragindako kalte material eta pertsonalei dagokienez.

- Bidaien eta kongresuetan eta antzeko izaera duten bilera eta ekitaldietan parte hartzearen ondoriozko erantzukizuna, bai eta azoka, erakusketa edo antzeko ekitaldietara joatearen ondoriozkoa ere.

- Suhiltzaileen Kidegoaren, Udaltzaingoaren, Babes Zibileko boluntarioen eta gainerako boluntarioen jardueraren ondoriozko erantzukizuna.

- Aseguratutako erakundeetako lanpostuetarako langileak hautatzeko proben antolaketaren ondoriozko erantzukizuna, probak erakunde horien lokal propioetan zein besteren lokaletan egiten diren kontuan hartu gabe.
- Egoitza, aterpetxe, ostatu, kanpin, hotel-establezimendu eta antzekoen, kirol-zentroen, kirol-zelai eta -instalazioen, igerilekuen eta udalaren gainerako kirol-instalazioen titulartasunaren, jabetzaren, mantentze-lanen eta ustiapenaren ondoriozko erantzukizuna.
- Semaforoak, argi-zutoinak, trafiko-seinaleak, estolderia, hiri-garbiketa, zabor-bilketa, ur-hornidurako instalazioak eta hoditeriak, eta gainerako udal-zerbitzuak.
- Ibilgailuen gordailuak, merkatuak, hiltegiak, hilerriak, udal zabor-guneak (garbiguneak barne; zabortegiak eta ekoparkeak kanpoan geratzen dira)
- Era guztietako irakaskuntza-zentroak, lanbide-tailerrak eta lanbide-heziketako zentroak; bai eta honako jarduera eta tailerrak antolatu eta horietan parte hartzearen ondoriozko erantzukizun zuzena edo subsidiarioa ere: udako ikastaroak, hitzaldiak, brikolaje- eta aisialdi-tailerrak, kontzertuak, eskola-antzerkiak, txangoak eta bisita kulturalak.
- Laneko arriskuen babes eta prebentzio Zerbitzuaren erantzukizun zibila/ondare-erantzukizuna, lan-arriskuen babes eta prebentzio zerbitzua emateko aseguratutako erakundeek izendatutako langileen egintzetatik eratorria, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa betez. Era berean, langile horietako edozeini zuzenean eska dakiokeen erantzukizun zibila ere estalita geratzen da.

1.2 Enpresaburuaren erantzukizun zibila

- Aseguratuari judizialki eska dakiokeen erantzukizuna, hirugarrentzat hartzen diren langileek edo haien eskubidedunek erreklamatzen dutenean, betiere erreklamazioaren arrazoia aseguratutako jarduera gauzatzean jasandako kalte pertsonalak badira. Kalte horiek eragin dituen egitatea lan-istriputzat aitortu eta onartu beharko dute eskumena duten erakundeek.
- Berme honen ondorioetarako, hirugarrentzat hartuko dira aseguratuetako erakundeen plantillako besteren konturako langileak, baldin eta egitateak gertatu ziren unean Gizarte Segurantzan edo dagokion mutualitatean edo erakundean alta emanda badaude.

1.3 Erantzukizun zibil gurutzatua

Aseguratuaren erantzukizun zibil subsidiarioa estalita geratuko da haren kontratisten eta/edo azpikontratisten soldatapeko langileen aurrean, betiere gorputz-kalteak aseguratuaren lan-eremu, lokal edo lan-guneetan gertatzen badira.

Estaldura honen eraginkortasuna honako betekizun hauek betetzearen eta aldi berean gertatzearen mende egongo da:

- Enpresetako soldatapeko langileei eragindako gorputz-kalteak lanaren ondorioz gertatu badira, enpresa horien erantzukizun zibila edo penala epai judizial irmo baten bidez deklaratu beharko da, auzitegi zibil edo penal batek emandakoa.
- Aipatutako prozesu judizialean enpresen kaudimengabezia irmoki egiaztatu beharko da, enpresek beren gain dituzten kalte-ordainak ordaintzeko ezintasuna dutela frogatzeko; era berean, Aseguratuari erantzukizun subsidiarioa egotzi beharko zaio, langile horiei dagozkien kalte-ordainak ordaintzeko.

1.4 Erantzukizun zibil profesionala

Estaldura honek aseguratutako erakundeen zerbitzura dauden tituludun langileek beren eginkizunak betetzean egindako jarduera profesionaletik eratorritako erantzukizuna estaltzen du.

Indarrean dagoen araudiaren arabera Aseguratuari dagokion erantzukizun zibil/ondare-erantzukizunetik eratorritako ondorio ekonomikoak bermatzen dira, aurretik definitu diren moduan, hirugarrenei eragindako gorputz-kalteengatik, kalte materialengatik eta ondoriozko nahiz ondoriozkoak ez diren kalteei dagokienez, baldin eta kalte horiek aseguratutako erakundeetako profesional gisa jardutean egindako akats, egintza edo ez-egiteen ondorio badira.

Adibide gisa baino ez, honako erantzukizun hauek bermatuta geratzen dira:

a) Toki-erakundearen mendeko osasun-langileen jarduera profesionaletik eratorritako Erantzukizun Zibila bermatzen da, bai gizarte-laguntzako jardueran (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, droga-mendekotasuna duten pertsonak eta antzeko

kolektiboak), bai aseguratutako administrazioaren enpresako osasun-zerbitzuan (edo barneko osasun-zerbitzuan) dihardutenean.

Erantzukizun Zibileko estaldura honek beste aseguru batzuen aurrean, haien estaldurak derrigorrezkoak izan edo ez, subsidiarioki, gehiegizko estaldura gisa eta/edo baldintzen arteko diferentzia estaltzeko jardungo du, baldin eta aseguratutako teknikariek aseguru horien estaldurak baliatu ahal badituzte.

b) Profesional teknikoen jarduera, ondasun eta instalazioen eraikuntza-, muntaketa-, handitze- edo eraberritze-lanen eta/edo proiektuak zuzendu edo gainbegiratzearen ondoriozkoa, bai eta segurtasun- eta osasun-koordinazioaren ondoriozkoa ere.

c) Aseguratutako erakundeen mendeko hezkuntza-langileen (zuzendaritza, irakasle, zerbitzu osagarri edo mendeko langileen) jarduera profesionala, erakunde horien irakaskuntza-zentroetan, beren eginkizunak eta hezkuntza-jarduerak betetzean, ikastetxearen izenean edo haren kontura. Estaldurak ikasleek jasan ditzaketen kalteak barne hartzen ditu, ikasleak aipatutako irakaskuntza-zentroetako baten zaintza edo tutoretzapean daudenean, bai ikastetxearen barruan, bai bidaiak, txangoak, txapelketak, bisita kulturalak eta antzeko ekitaldiak egiten dituztenean.

d) Oro har, aseguratutako erakundeetan langileen jarduera profesional guztiak, erakunde horien izenean edo haien kontura beren eginkizunak betetzen dituzten bitartean.

Erantzukizun profesionalaren estaldura honek beste aseguru batzuen aurrean, haien osagarri gisa edo haien baldintzen aldeak estaliz jardungo du, aseguru horiek nahitaezkoak izan edo ez, dela dagokion elkargo profesionalaren bidez kontratatuak, bai beste edozein bideren bidez kontratatutakoak.

1.5 Ondare-kalte hutsek eragindako kalteen erantzukizuna

Berme honek Aseguratuaren erantzukizun zibila estaltzen du, hirugarrenen ondarean eragindako kalteengatik, baldin eta kalte horiek ez badira erreklamatzaileak aurretik jasandako kalte material edo pertsonalen ondorio, eta Aseguratuak, legearen arabera, erantzun behar dituen ezusteko eta ustekabeko gertakarien ondorio badira.

BAZTERTUTAKO ARRISKUAK

Berme guztiei aplikatzen zaizkien bazterketa orokorrak:

1. Aseguratuaren jabetzako, alokairuan dituen, zaintzen dituen edo erabiltzen dituen ibilgailuek zirkulazioaren ondorioz zuzenean eragindako kalteak, baldin eta Automobilaren Nahitaezko Aseguruaren bidez estalita egon behar badute.
2. Fenomeno naturalek eragindako kalteak, hala nola lurrikarak, luiziak edo lur-jausiak, ekaitzak, urakanak, uholdeak eta antzekoak.
3. Amiantoak egoera naturalean edo haren produktuek eragindako kalteak, bai eta amianto-zuntzak dituzten hautsen eraginpean dauden eragiketa edo jarduerekin lotutako kalteak ere.
4. Aseguratuaren kontratuzko erantzukizunak, legez dagokiona gainditzen duen neurrian.
5. Edozein motatako isunak edo zehapenak, eta, bereziki, zigor-kalteak eta kalte eredugarriak (*punitive or exemplary damages*), eta antzekoak.
6. Gas eta elektrizitate hornidura, presak eta urtegiak edukitzea; autobus-, metro- eta tren-geltokiak ustiatzea, bai eta garraiobide horien zuzeneko kudeaketa ere; aireportuetako lanak egitea; eta banku- edo kreditu-erakundeen ustiapena.
7. Aseguratuen erantzukizuna, aseguratutako jarduerak arautzen dituzten arauak borondatez eta justifikaziorik gabe urratzearen edo ez betetzearen ondoriozko kalteei dagokienez, bai eta doloz egindako egintzen ondoriozko kalteei dagokienez ere.
8. Kea, lurrunak, kedarra, azidoak, substantzia alkalinoak, produktu kimiko toxikoak, likidoak edo gasak, hondakinak edo bestelako substantzia narritagarri, kutsatzaile edo poluitzaileak lurrera, atmosferara edo edozein ur-ibilgu edo ur-masatara deskargatu, barreiatu, isuri edo ihes egitearen ondorioz eragindako kalteak, baldin eta deskarga, barreiatze, isurketa edo ihesa modu motel, mailakatu eta progresiboan gertatzen bada, aseguratuaren asmoa edozein dela ere.

Salbuespen hori ez da aplikatuko deskarga, barreiatze, isurketa edo ihes horrek honako baldintza guztiak betetzen baditu:

a) Bat-batean eta ustekabean gertatzea.

b) Deskarga, barreiatze, isurketa edo ihesaren hasiera polizaren indarraldian gertatzea.

c) Deskarga, barreiatze, isurketa eta ihesak 72 ordutik gorako iraupenik ez izatea

d) Eragindako kaltea deskarga, barreiatze, isurketa edo ihesaren hasieratik hurrengo 72 orduen barruan agertzea.

Hala badagokio, polizaren indarraldian gertatutako eta kalte-ordaina eskatu zaion gorputzeko kalte eta kalte materialak soilik egongo dira bermatuta, poliza baliogabetu eta gehienez bi urtera arte Aseguratzaileari erreklamatzen bazaizkio.

Nolanahi ere, baztertuta geratuko dira zarataren ondoriozko erreklamazioak, kalte genetikoengatikoak eta kutsadura erradioaktiboaren edo erregai nuklearren ondoriozko kutsaduraren gainekoak.

9. Udal-eraikin eta -instalazioen mantentze-, kontserbazio- edo konponketa-lanak kontratu edo emakida bidez egiteko ardura duten enpresa edo pertsonen zuzeneko erantzukizuna, bai eta udal-ondasunen edo udal-zerbitzuen zuzeneko ustiapenaren edo udalekotutako zerbitzuen zuzeneko ustiapenaren ondoriozko erantzukizuna ere (hondakinen bilketa, merkatuetako postuak, biltegi orokorrak, antzeko establezimenduak eta abar)
10. Zaintzapean edo gordailuan dauden ondasunen eta langileen ondasunen estalduraren barruan, ez dira aseguratutzat hartuko dirua, tituluak, baloreak, aurrezki-libretak, txeke-libretak, dokumentuak eta bitxiak edo bitxi-piezak galtzearen edo desagertzearen ondoriozko erreklamazioak.
11. Zuzenean lantzen diren ondasunetan eragindako kalteak, bai eta Aseguratuak bere jarduera profesionalean esku hartu duen obra, eraikin eta instalazioetan jasandako kalteak ere, ondasun horiek aurretik existitzen zirenak izan edo Aseguratuaren lanen xede izan, azken hori proiektuaren egilea, obraren zuzendaria edo obra eta instalazio horien gainbegiratzailea izan. Era berean, aseguratutako erakundeek beren langileen aurka egindako erreklamazioak ere baztertuta geratzen dira.

Era berean, kanpoan geratzen dira obra, eraikin eta/edo instalazio horietan erabilitako aparatu, ekipamendu eta materialei eragindako kalteak.

Eraikinak eraisteko edo botatzeko lanetan, alboko eraikinetan hezetasunek eragindako kalte materialak baztertuta geratzen dira, beharrezko prebentzio-neurriak hartu ez badira, hala nola plastikoak jartzea.

Nolanahi ere, Kode Zibilaren 1591. artikuluan eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritako hamar urteko Erantzukizun Zibila (*Responsabilidad Civil Decenal*) berariaz baztertuta geratzen da.

12. Gerra zibilaren edo nazioarteko gerraren, matxinadaren, altxamenduaren, iraultzaren, sabotaje-ekintzen, manifestazioen edo herri-mugimenduen ondorioz eragindako kalteak baztertuta geratzen dira, bai eta terrorismoaren ondorioz edo terrorismoarekin zuzenean nahiz zeharka lotuta sortutako kalteak ere, ezbeharra eragiten lagundu duten beste kausa edo gertakari batzuk aldi berean edo beste edozein hurrenkeratan gertatu diren ala ez kontuan hartu gabe.

Terrorismoaren kontzeptuaren barruan honako hauek sartuko dira: edozein nazioren edo haren banaketa politiko baten sistema politiko ezarrian eragiteko helburua duen edozein egintza, ekintza-prestaketa edo mehatxu, helburu politiko, erlijioso edo antzekoak lortzeko, edo gertatzen den gizarte-ingurunean beldurra edo segurtasunik eza eragiteko, edozein pertsonak edo pertsona-talde batek egina, bakarka jardunez edo *de iure* nahiz *de facto* edozein erakunde edo gobernuren aginduz edo harekin lotuta jardun, eta honako hauetako bat dakarrena:

- pertsona baten edo gehiagoren aurkako indarkeria erabiltzea; edo
- ondasunetan kalteak eragitea; edo
- egintza egiten duten pertsonak ez diren beste pertsonen bizitzak arriskuan jartzea; edo
- biztanleriaren edo haren zati baten osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzea; edo
- sistema elektroniko bat oztopatzeko edo eteteko helburua izatea.

Halaber, baztertuta geratzen dira edozein terrorismo-ekintza kontrolatzeko, prebenitzeko, geldiarazteko, mendekua hartzeko edo hari erantzuteko egindako edozein ekintzak zuzenean edo zeharka eragindako galerak, kalteak edo gastuak, bai eta terrorismo-ekintzaren batek eragindako etekin-galerak edo negozioaren etenaldiak ere.

13. Nahitaezko aseguru baten bidez estali beharreko arriskuen ondoriozko kalte eta galerak.
14. Edozein motatako artefaktu, ontzi, itsasontzi edo aireontzik eragindako kalte eta galerak, baldin eta uraren edo airearen bidez nabigatzeko edo eusteko badira.
15. Lehergailuen erabilera, biltegiratze, garraiatze edo manipulazioaren ondorioz eragindako kalteak eta galerak, bai eta indarrean dagoen legerian definitutako produktu kimiko arriskutsuen garraioak eragindakoak ere.
16. Kostaldetik kanpo itsasoan kokatutako arriskuetan edo arrisku horien ondorioz eragindako kalte eta galerak, hau da, *offshore* edo kostaldetik kanpoko arrisku deritzenak. Honako hauek hartuko dira halakotzat: itsasoan edo itsas hondoan

kokatutako arrisku, lan eta instalazio guztiak, baldin eta haietara itsasontzien edo beste itsasontzi-mota batzuen, gabarren edo helikopteroen bidez soilik irits badaiteke, eta ohiko “lan hezeak” ez badira, hala nola portuak, dikeak, zubiak, kaiak, estolderia, hozteko uraren hartuneak edo ura husteko zerbitzuak.

17. Administrazio-egintza arauemaile orokorrak, hau da, legegintza- eta erregelamendu-ahalmenak baliatuz emandako izaera orokorreko administrazio-xedapenak, bai eta administrazio-egintza singularrak ere, araua kasu zehatz bakoitzean aplikatzea ulertuta.
18. Ordena publikoarekin lotutako jarduketak; bereziki:

- Ordena publikoko indarrek istilu edo nahasmenduen ondorioz eragindako kalteak.

- Agintari eta udal-agenteei eragindako kalteak.

- Lege- edo erregelamendu-arauak ez betetzearen ondoriozko kalteak.

- Aseguratutako Administrazioaren eskumenekoak diren ekitaldi publikoak, hala nola manifestazioak, mitinak edo bilerak, baimentzetik edo ukatzetik eratorritakoak.

- Aseguratutako Administrazioaren segurtasun-kidego eta -indarrek ekitaldi politiko-sozial jendetsuak edo masiboak arautu eta kontrolatzeko egindako zuzeneko edo laguntza-jarduketaren ondoriozko kalteak.

- Behin-behineko espetxealdiari eta Espetxe Erakundeei buruzko Lege eta Erregelamenduen aplikaziotik eratorritako kalteak, salbu eta kalte horiek lokalen mantentze- eta kontserbazio-akatsengatik edo elikagaiak emateko zerbitzuaren akatsengatik sortzen badira.

19. Entzierroetan, bigantxetan (*capeas*) eta, oro har, zezen-ekitaldietan parte hartzen duten pertsonek jasandako kalteak (parte-hartzailetzat hartuko da istripua gertatzen den unean ekitaldi horiek egiten diren ibilbidean, zezen-plazan edo lekuan dagoen pertsona oro), bai eta edozein motatako ikuskizunetan parte hartzen duten artistek —profesionalak nahiz amateurrak— eta haien ondasunek jasandako kalteak ere.
20. Su artifizialak jaurtitzeaz arduratzen diren piroteknikariei legozkiekeen erantzukizun zibila.
21. Biztanleriari hornitutako uraren usain, kolore edo zapore txarraren ondoriozko kalteak
22. Kontseilukideen, administratzaileen eta zuzendarien erantzukizun zibila (**D&O**), baldin eta poliza honen bidez aseguratutako pertsonek izaera horretan jarduten badute kapital publikoaren partaidetza duten enpresa pribatuetan. Era berean,

baztertuta geratzen dira Administrazio Publikoaren agintariek eta haren zerbitzuko langileek betetzen dituzten karguen jardunaren ondoriozko erantzukizuna, bai eta kontabilitate-erantzukizuna ere.

23. Estalduratik kanpo geratuko dira ezarritako sistema politikoa edo lurralde-antolamendua aldatzea bideratutako egintza edo ekintzak, eta horien ondorioak.
24. Enpresaburuaren erantzukizun zibilaren estaldurari dagozkion bazterketa espezifikoak:

- Lan-istripuen aseguruaren estalduratik kanpo geratutako istripuengatiko kalte-ordainak..
- Lanbide-gaixotasunek bai eta gaixotasun psikikoek, garunekoek edo koronarioek eragindako laguntza-gastuak eta kalte-ordainak.
- Lan-arloko betebeharrak ez betetzeagatik aurkeztutako erreklamazioak, betebehar horiek kontratuzkoak zein legezkoak izan, Gizarte Segurantzari, lan-istripuen aseguruari, soldaten ordainketari eta antzekoei dagozkienean, bai eta hitzarmen kolektiboetan edo banakako hitzarmenetan aurreikusitako eta adostutakoak ere.
- Indarrean dagoen lan-arloko edo Gizarte Segurantzako legerian ezarritako isunak, zehapenak edo errekarguak, bai eta horiek ez ordaintzearen ondorioak ere.
- Kaleratzea, kargutik kentzea, enplegu-harremana legez kanpo amaitzea, lan-kontratua ez betetzea, lanbide-aukerak legez kanpo ukatzea, lan-baldintzak edo lan-egoera aldatzea, langileen aurkako legez kanpoko errepresaliak, eta enpleguarekin lotutako estres iraunkorra edo nahasmendu emozionala.
- Kalte materialen ordaina.

25. Lehen mailako ondare-kalteen estaldurari dagozkion bazterketa espezifikoak:

- Diru-galerak, diru-zeinuak eta, oro har, baloreak eta eramailearen edo zuriz endosatutako agindupeko tituluak.
- Kalte moraletatik eratorritako erreklamazioak, baldin eta kalte horiek kaltetuaren ondare-esparruan eraginik ez badute, edo kalte moralak kalte pertsonal edo materialen ondorio ez badira; besteak beste, norberaren edo familiaren intimitaterako eskubidearen, norberaren irudirako eskubidearen edo pertsonen babeserako beste eskubide batzuen urraketagatik aurkeztutako erreklamazioa.

- Atzerriko auzitegien aurrean aurkeztutako erreklamazioak, atzerriko zuzenbidea urratu edo ez betetzetik eratorritakoak, bai eta atzerrian gauzatutako jarduera profesional baten ondoriozkoak ere
- Aurrekontuak edo kredituak gainditzearen ondoriozko erreklamazioak, bai eta negozio ekonomiko, higiezin edo bestelako merkataritza-eragiketei buruzko bitartekaritza- edo gomendiotik (ordainsariduna zein doakoa) eratorritakoak ere.
- Kutxako hutsuneengatik, ordainketako akatsengatik eta Aseguratuaren langileen desleialtasunagatiko aurkeztutako erreklamazioak
- Sekretu profesionala urratzeagatik aurkeztutako erreklamazioak.
- Aseguratuaren ordezkariek Espainiako lurralde nazionaletik kanpo egindako jardueren ondoriozko erreklamazioak.
- Administrazio-egintzen ondoriozko kalteengatiko erreklamazioak, administrazio-egintzatzat arauak behar bezala aplikatuz egindakoak ulertuta.
- Baimen edo lizentziak ematearen edo ukatzearen, hirigintza-kalifikazioen edo -birkalifikazioen, administrazio-kontratuen edo nahitaezko desjabetzeari buruzko legeria aplikatzearen ondoriozko lehen mailako ondare-kalteak.
- Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko erantzukizun zibilaren bermeren baten estaldurapean dauden erreklamazioak.
- Publizitate-jardueraren ondoriozko erantzukizun zibila eta ondare-erantzukizuna.
- Kontratu-betebeharrak ez betetzea, epeak ez betetzea eta berandutzea.
- Enplegu-praktika desegokiengatik aurkeztutako erreklamazioak..
- Informazio konfidentziala zabaltzeak, lehia desleialak, publizitate engainagarriak, kalumniak edo irainak eragindako kalteak.
- Patenteen, marken, ereduen eta merkataritza-babeseko gainerako eskubideen urraketan oinarritutako erreklamazioak, bai eta, oro har, jabetza intelektualaren esparruan sartzen diren eskubideetan oinarritutakoak ere.

26. Erantzukizun zibil profesionalaren estaldurari dagozkion bazterketa espezifikoak:

- Prozedura esperimentalen bidez gauzatutako obretatik eratorritako erantzukizunak. Prozedura esperimental gisa hartuko dira Aseguratuak egindako proiektu edo eraikuntza guztiak, baldin eta aurretik munduko beste edozein lekutan egin ez badira.
- Aseguratuaren teknikariek haiekin duten kontratu-harremanaren esparrutik kanpo egindako jarduketak..
- Aplikazio orokorreko legeek eta/edo erregelamenduek debekatuta egon arren nahita hasitako jarduketak, bai eta aseguratuaren teknikarien lanbide-jarduna arautzen duten arauak urratuz egindakoak ere.
- Aseguratutako Administrazioaren teknikari elkartuen jarduera, bai eta lan bera gauzatzeko teknikari horiekin elkarlanean jarduten duten beste enpresa, ingeniari, arkitekto eta abarren jarduketak ere. Erantzukizun bateratua dagoenean, bermea aseguratutako teknikariek beren gain hartu behar duten kaltearen zatiari soilik aplikatuko zaio.
- Neurketen edo aurrekontuen kalkuluetatik eratorritako erantzukizunak, baldin eta horien ondorioz obraren kostua aurrekontuarekiko aldatzen bada.
- Entregatzeko atzerapenak, jarduera etetea, irabazi-galera, instalazioek, makinek eta antzekoek ez funtzionatzea edo behar bezala ez funtzionatzea, eta horren ondorioz sortutako ekoizpen-galera, errendimenduaren murrizketa edo kantitate-, kalitate- edo errentagarritasun-falta.
- Proiektu berri bat egiteak edo lehendik dagoena zuzentzeak eragindako gastuak (ordainsariak, planoen kostua, ikerketa edo azterlan berriak edo zabaldutakoak).
- Egile-eskubideak edo zortasun-eskubideak urratzea.
- Lizentziak emateari dagokionez, lizentziek berek eragindako gastu eta kostu huts-hutsik ekonomikoak, bai eta lizentzia horiek emateak edo eskatzeak sortutako administrazio- eta legezko izapideen ondoriozko gastuak ere, baldin eta lizentziak ukatu badira.
- Osasun-arloko Erantzukizun Zibil Profesionala, salbu eta Toki Erakundearen mendeko osasun-langileen jarduera profesionalaren ondoriozko Erantzukizun Zibila, baldin eta langile horiek gizarte-laguntzako jardueran (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, drogazaletasuna duten pertsonak eta antzekoak) edo aseguratutako

administrazioaren enpresa-medikuntzako zerbitzuan (edo barneko mediku-zerbitzuan) jarduten badute.

- Hirugarrenei zerbitzu profesionalak ematea, hala nola proiektuak egitea, diseinua, ingeniaritza, azterlanak, txosten teknikoak, aholkularitza- edo kontsulta-zerbitzuak, zerbitzu horiek ordainsari profesionalen bidez edo antzeko moduan ordaintzen direnean, baldin eta zerbitzu horiek aseguratutako jardueraren xede badira (erantzukizun zibil profesionala).

27. Produktuari edo lanari, edo horien zati bati eragindako kalteak.
28. Urriaren 23ko 26/2007 Legean, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoan, eta hura garatzeko araudian oinarritutako ingurumen-erantzukizunagatiko edozein erreklamazio baztertuta geratuko da, baldin eta Administrazio Publikoak eskatzen badu edo eskatu ahal badu.
29. Aseguratzaileak Nazio Batuen Erakundearen edozein ebazpen edo araudiren, edo Europar Batasunak (edo haren estatu kideetako edozeinek), Erresuma Batuak edo Ameriketako Estatu Batuek ezarritako araudi, lege, zehapen ekonomiko edo merkataritza-zehapenen arabera edozein motatako zehapen, debeku edo murrizketaren eraginpean egoteko arriskua ekar dezakeen edozein ordainketa edo prestazio baztertuta geratuko da.
30. Esposizio nuklearra:

Bazterketa honen ondorioetarako, **«bazterketa nuklearra»** honako hau izango da:

a) energia nuklearraren arriskuak, **NMA 1975 Energia Nuklearraren Arriskuak Baztertzeko Klausularen** (*Nuclear Energy Risks Exclusion Clause*) arabera, eta
b) erreakzio nuklearrak, erradiazio nuklearrak edo kutsadura erradioaktiboak zuzenean nahiz zeharka eragindako edozein motatako erantzukizuna, galera, kaltea edo gastua, edozein izaeratakoa dela ere, kaltean beste edozein kausak aldi berean edo beste edozein sekuentziatan lagundu ote duen kontuan hartu gabe.

31. Meatzaritzako arriskuei lotutako erreklamazioak, meatzaritza lurpean zein aire zabalean egiten denean.
32. Bahiketaren eta erreskatearen ondoriozko erreklamazioak.

33. Giza gorputzetik osorik edo zati batean eratorritako edozein motatako materialaren proba, aldaketa, eskuratze, lortze, prestaketa, prozesatze, fabrikazio, manipulazio, banaketa, biltegiratze, aplikazio edo beste edozein erabileratik eratorritako edozein erantzukizun. Besteak beste, ehunak, zelulak, organoak, transplanteak, odola, gernua, iraizkinak eta jariakinak barne hartzen dira, bai eta material horietatik eratorritako edo biosintesi bidez lortutako deribatu eta produktuak ere.
34. Genetikoki eraldatutako organismoekin lotutako edozein Erantzukizun Zibil.
35. Tabakoa eta haren produktu eratorriak fabrikatzearekin edo banatzearekin zuzenean lotutako erreklamazioak.
36. Petrolio-putzuen, haien instalazioen eta/edo ekipoen jabetzarekin eta ustiapenarekin lotutako edozein erantzukizun, bai eta instalazio horietan egindako lanekin lotutakoak ere.
37. Edozein motatako ibilgailu motordunen lasterketak antolatzea eta horietan parte hartzea.
38. Horniduraren hutsegite edo etenetatik eratorritako erreklamazioak.
39. Egitura- edo karga-elementuei eragiten dieten obren ondoriozko erreklamazioak.
40. Lurpeko eroanbideekin lotutako erreklamazioak, baldin eta lanak hasi baino gutxienez hamar egun lehenago eroanbide horien planoak eskatu ez badira.
41. Honako produktu eta substantzia hauek:
    a) **Stockholmeko Hitzarmenean** kutsatzaile organiko iraunkorren zerrendetan jasotako substantzia eta produktu kimikoak, bai eta **Rotterdameko Hitzarmenaren III. eranskinean** zerrendatutako pestizida eta produktu kimiko arriskutsuak ere.
    b) Glifosatoa, Atrazina, Dikamba, Neonikotinoideak, Paraquat eta Klorpirifosa dituzten produktuak.
    c) Metil tert-butil eterra (**MTBE**) duten produktuak.
    d) Amonio nitratoa duten produktuak.
    e) Talkoa duten produktuak.
    f) Drogak, opioideak eta kalamutik eratorritako produktuak.
    g) Amiantoa, bere egoera naturalean, bai eta amianto-zuntzak dituzten hautsaren eraginpean egiten diren jarduerak ere.
    h) Formaldehidozko urea-aparrak eta/edo erretxinak, bifenilo polikloratuak (**PCB**) eta diazetiloa.

42. Gorputz-kalte, kalte material edo kalte pertsonal eta publizitario baten ondoriozko edozein erreklamazio, bai eta zuzenean edo zeharka **"abusuzko egintza"** batetik sortutako edozein galera, kostu edo gastu ere. "Abusuzko egintza" honela definitzen da: edozein pertsonaren aurkako **abusu edo jazarpen erreal edo mehatxuzko edozein egintza edo egintza-segida**, besteak beste, ahozko, fisiko, mental, emozional, psikologiko, finantzario, ekonomiko, kultural, identitatearekin lotutako edo sexuala izan daitekeena, edozein pertsona edo erakundek egina.
43. Itsasontziei, ontziei eta aireontziei eragindako kalteen ondoriozko erreklamazioak, bai eta itsasoko edo aireko trafikoa etetearen ondoriozkoak ere.
44. Eremu elektromagnetikoak edo energiaren beste edozein adierazpen, dela uhinen, erradiazioen edo beste edozein moduren bidez transmititzen dena.
45. Jatorri elektrikoko baso-suteak.
46. Izaera pertsonaleko datuen babesaren urraketari buruzko Erantzukizun zibilaren edozein bermeren estaldurapean dauden erreklamazioak.
47. Publizitate-jardueraren ondoriozko erantzukizun zibila eta ondare-erantzukizuna.

Lizitatzaileak honako salbuespen hauek idatzi ahal izango ditu, betiere plegu honetan ezarritakoaren aurka ez badoaz.

GAIXOTASUN KUTSAKORRAK
PFAS
ARRISKU ZIBERNETIKOAK
PANDEMIAK
ZIGORTUTAKO HERRIALDEAK

DEFENTSA JURIDIKOA

Erreklamazioaren xedea polizaren estalduren barruan badago, honako hauek ere bermatuko dira:

a) Aseguratuaren prozesu-defentsa, edozein jurisdikziotako prozeduretan, eta sortzen diren gastu guztiak ordaintzea.

b) Prozeduraren ondorio zibilak bermatzeko edo behin-behineko askatasuna ziurtatzeko eskatzen diren behin-behineko edo behin betiko epaiketa-fidantzak eratzea.

c) Aseguratzaileak bere gain hartuko du kaltetuaren erreklamazioaren aurreko zuzendaritza juridikoa, eta bere kontura izango dira horren ondorioz sortzen diren defentsa-gastuak. Aseguratuak beharrezko lankidetza eman beharko du Aseguratzaileak bere gain hartutako zuzendaritza juridikoa behar bezala gauzatzeko

Aseguratuak bere defentsa propioa izendatzen badu, sortzen diren gastu judizial guztiak haren kontura izango dira.

d) Aurreko apartatuetan aipatutako estaldurak aplikatuko dira, halaber, aseguratutako jardueraren gauzatzearen ondorioz Aseguratuaren aurka hasitako administrazioarekiko auzi-prozeduretan eta prozedura penaletan, defendatuaren aldez aurreko baimenarekin.

e) Aseguratuaren aurkako prozedura judizial batean kondena-epaia ematen bada, Aseguratzaileak erabakiko du ea bidezkoa den errekurtsoa jartzea dagokion goi-mailako auzitegian. Errekurtsoa ez jartzea egoki dela irizten badio, horren berri emango dio interesdunari, eta honek bere kontura helegitea aurkezteko askatasuna izango du. Azken kasu horretan, interesdunak aurkeztutako errekurtsoak Aseguratzailearen interesen aldeko ebazpena ekarriko balu, eta ondorioz, Aseguratzaileak ordaindu beharreko kalte-ordaina murrizten bada, Aseguratzaileak bere gain hartu beharko ditu errekurtso horrek eragindako gastuak.

Aseguratuaren eta Aseguratzailearen artean interes-gatazka sortzen bada, Aseguratzaileak, ezbeharraren ondorioz, Aseguratuaren defentsaren aurkako interesak defendatu behar dituelako, Aseguratzaileak horren berri emango dio Aseguratuari. Horrek ez du eragotziko, hala ere, premiazkoak diren eta aseguratuaren defentsarako beharrezkoak diren eginbideak gauzatzea. Kasu horretan, Aseguratuak aukera izango du aseguratzaileak bere gain hartutako zuzendaritza juridikoa mantentzea edo bere defentsa beste profesional baten esku uztea. Azken kasu horretan, Aseguratzaileak bere gain hartuko ditu defentsa juridiko horren gastuak.

Azken kasu horretan, konpainiak gehienez 15.000 € ordaindu beharko ditu ezbehar bakoitzeko, zuzendaritza juridiko horrek eragindako gastuengatik.

Fidantza judizialak

Aseguratzaileak bermatzen du, halaber, aseguratuari fidantza judizialak ematea, haren erantzukizun zibila edo ondare-erantzukizuna bermatzeko edo, polizak estalitako ezbehar baten ondoriozko prozedura penal batean, behin-behineko askatasuna lortzeko.

Fidantza hori balizko kalte-ordainaren konturako ordainketatzat hartuko da, eta gehieneko muga izango da dagokion erantzukizun zibilaren estaldurarako aseguratutako zenbatekoa. Estaldura honetatik kanpo geratzen dira zehapen pertsonalak ordaintzeko fidantzak, hala nola isunak edo prozesuko kostuak.

Berariaz adosten da fidantzak ematea erakunde aseguratuen mendeko langileen aurka egindako dolozko egintzen akusazioen kasuan. Dolozko egintza batengatik (polizak estaltzen ez duen egintza) behin betiko kondena emanez gero, aseguratuak aseguratzaileari ordaindu beharko dizkio eragindako gastuak eta gordailututako fidantzak itzuli beharko ditu.

Gastuen liberazioa

Polizaren bidez aseguratutako zenbatekoa goian aipatutako gastu judizialen ondoriozko edozein kenkaritik libre dagoela ulertuko da, gastu horiek eta ordaindutako kalte-ordaina gehituta ezbehar bakoitzeko muga gainditzen badute, betiere akzioak Espainiako auzitegietan aurkeztu badira.

KALTE-ORDAINEN MUGAK

Ezbehar bakoitzeko muga: 2.000.000 €

Urteko muga: 4.000.000 €

Biktima bakoitzeko azpimuga (orokorra, enpresaburuaren erantzukizuna eta gurutzatua): 500.000 €

PPP azpimuga: 300.000 € ezbehar eta aseguru-aldi bakoitzeko.

Zaintzapean edo gordailuan dauden hirugarrenen ondasunak eta langileen ondasunak: 50.000 € ezbehar bakoitzeko eta 200.000 € aseguru-aldi bakoitzeko.

Defentsa eta fidantza zibil eta penalak: BARNE HARTUTA

Nolanahi ere, Aseguratzailearen erantzukizun ekonomikoaren gehieneko muga ez da inoiz izango aseguratutako zenbatekoa baino handiagoa, ezbehar bakoitzeko edo urteko ezbehar guztiengatik, mota guztietako gastuak barne, estaldura eta biktima guztiak kontuan hartuta.

FRANKIZIAK

Orokorra: 900 €

Ondare-kalte puruak (PPP): 6.000

ONDARE-ERANTZUKIZUNEKO EZBEHARREN IZAPIDETZE-PROTOKOLOA

Udal baten ondare-erantzukizuneko espedienteen izapidetzea, oro har, honako araudi honek arautzen du:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

Komunikatzeko eta izapidetzeko prozedura

Ondare-erantzukizuneko espedienteen kudeaketa legeetan ezarritako prozeduraren eta Udalaren barne-antolamenduaren arabera egingo da, administrazio-izapidearen fase ezberdinak errespetatuz.

1. Hasierako jakinarazpena

Udalak espedientearen berri emango dio WTWri, eta bideratzen hasteko dekretua eta erreklamatzaileak aurkeztutako dokumentazio guztia bidaliko dizkio.

Dokumentazioa jasotakoan, WTWk ezbeharra Aseguru-etxean ireki eta jakinaraziko du. Aseguru-etxeak baloratuko du Udalak irekitako prozeduran pertsonatzea, interesdunaren izaera duelako.

2. Espedientearen instrukzioa

Prozedura legeetan xedatutakoaren arabera izapidetuko da, eta, hala badagokio, dagokion proba-aldia irekiko da, baita onartutako probak egitea ere.

Entzunaldiaren izapidea hastearekin batera, Udalak prozeduran egindako jarduketa guztiak aseguru-etxearen eskura jarriko ditu, WTWren bidez, hark baloratu ahal izan ditzan

3. Aseguru-etxearen balorazioa

Aseguru-etxeak jasotako dokumentazioa aztertuko du eta WTWri helaraziko dio erreklamatutako gertakarietan Udalak izan dezakeen ondare-erantzukizunari buruzko jarrera.

4. Espedientearen ebazpena

Administrazio-espedientea, egindako probak eta Aseguru-etxeak egindako oharrak kontuan hartuta, instruktoreak ebazpen-proposamena egingo du, eta eskumena duen organoak ebatziko du, kaltetutako hirugarrenak aurkeztutako erreklamazioa baietsiz edo ezetsiz.

5. Udalaren eta Aseguru-Etxearen arteko desadostasunak

Aseguru-etxearen jarrera Udalak mantendutako irizpidearekin bat ez datorrenean, bi alderdiek beren balorazioak alderatuko dituzte, espedientearen behin betiko ebazpena eman aurretik.

Bereziki, Udalak erreklamazio bat baiestea aurreikusten duenean eta aseguru-etxeak erantzukizunik ez dagoela adierazi duenean, gomendatzen da egoera hori aldez aurretik aseguru-etxeari helaraztea, WTWren bidez, ebazpen baieslea eman aurretik egokitzat jotzen dituen oharrak edo alegazioak egin ahal izan ditzan.

Protokolo honek izaera operatiboa du, eta ulertu behar da Udalari, ondare-erantzukizuneko espedienteak ebazteko eskumena duen organoa den aldetik, legez esleitutako eskumen eta betebeharrak eragotzi gabe.